

'Gomutan. Bilboko historiaren atal ezezagunak'

Bizenta Mogel, Abandoko emakume idazlea



Hektor Ortega

BILBORI buruzko historia ofizialak ahaztu asko utzi ditu bazterrean. Horieta izan dira emakumeak, horietakoa izan da euskara. Bietatik zeukan Bizenta Mogelek eta, hortaz, nekez agertuko da gure udalerriko historia jorratzen duten liburuetan. Euskal literaturaren historian, oster, lehenengo emakume idazle gisa aipatua izan da eta hori ere, ikusiko dugunez, ez da zehatza.

Azkoitian jaio zen Bizenta Antonia Mogel Elgezabal 1782an, aita han zegoelako mediku. Hiru urte bete orduko, aita hil zitzaion eta orduan ama familiaren jaioterria, Markinara alegia, itzuli zen. Herri horretan hazi zen, neba Juan Joserekin, osaba Juan Antonio abade eta idazle ospetsuaren abaroen. Hiru osaba-lobak dira, hain zuzen, euskal literaturako Mogeldarren leinu ospetsua.

Osabak eskola bikaina eman zien loba biei, Bizentaren kasuan, neskatalak berak hala nahi izan zuelako. Horrela kontatu zuen: "Zortzi urte nituenean ekusirik nere neba ikasten asi zala gure osabarekin latinezko izkera, jarri zitzatan buruan ikasi bear nuela nik ere. Ala, buruari neke gogorrik eman gabe, loari bere orduak emanda, ta zigor zaurigarriaren beldurrik ez nuela, jolasez bezela irten nuen nire asmoarekin". Formakuntza klasiko horren ondorioz eman zuen argitaratu bere lehenengo liburua, 22 urte zituenean: "Ipui onak" zeukan izenburu eta 1804an plazaratu zuen, osaba hil zen urtean, alegia. Bertan Esoporen 50 alegia euskaraz eman zituen eta haiei osabaren zortzi alegia gehiago erantsi zizkion, baita beste zenbait testu labur ere.

Bizentak bazekien artean gizonei gordetako munduan sartzen ari zena, eta dotore azaldu zuen: "Badakit, entzunaz beste gabe, neskatz gazte baten izena dagoala itxasirik liburuxko onen aurkean, jardungo dutela siñtuka ez gutxi, diotela beren artean, iñoren lumaz jantzi nai duela bela-txikiak; au da, beste- ren bearrak artu nahi ditudala nerezat: ez dagokiolako neskata bati bururik autsitzea liburugiñen: asko duela

gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea".

Liburuak harrera ona eduki zuen, hala garai hartan, nola ondoren, gutxienez lau bider gehiago inprimategira eman zuten eta. Titulu osoa honakoa zen: "Ipui onak, zeintzuetan arkituko dituzten euskaldun nekazari ta gazte geiak erakaste ederrak beren bizitza zuzentzeko".

Eta hor ageri da Bizenta Mogelen ardura nagusietako bat: nekazarien esku jarri, bere ustez, eredu-garriak izan behar diren irizpideak eta pentsamenduak. Ikuspegi zehatza zabaldu nahi zuen, osaba, neba Juan Jose eta garai hartako abade erreformatzaile gehienek ideologiaren ildotik. Joseba Agirreazkuengak euskaltasun politikoa gisa bataiatu du eta Bilboaldean eduki zuen epizentro. XIX. mendeko lehenengo herenean gurean argitaratu zituzten, euskaraz, foruak eta ideologia tradizionala, antiliberala, ipar eta bihotz zeuzkatzen propaganda idazkiak.

Bilboaldean bai. Izan ere, Bizenta 1817an Abandora ezkondu zen, Eleuterio Basozabalekin. Harrezkero, gaur egun Bilboko erdigunea den elizate zaharrean bizi izan zen. Laster batu zen bertoko bizimodura. Ikustea besterik ez dago, uste guztien arabera, berak egin zituela 1819ko Abandoko gabon kantak, ondoko izenburu honekin argitaratuak: "Gaboneko kantia bizkaitar guztientzat euskaldun emakume batek aterria 1819garren urtian Abandoko elexatian". Adituen ustean, urte horretakoak ez ezik, harrezkero eta 1832 urte bitartean Bilbon plazaratu ziren gabon kanta gehienak Bizentari zor zaizkio. Eta gabon kanta diogunean, entzulea ez dadila erratu: Jesusen jaiotza goratu egiten zuten bai, baina oso-oso politikoak ziren. Entzun bestela, 1824koak, foruak kendu zituen Cadizko Konstituzioaren porrotaren ostean argitaratuak, zelan hasten ziren: "Bizkaian ez da biar/

erbeste legerik/ geure foru maitiak/ nai doguz bakarrik/ aldendu bitez bada/ gaiztuen asnuak/ eta gorde oso-ro/ Bizkaiko foruak".

Gizona, Eleuterio Basozabal, merkataria izan arren, bat zetorren andrearen pentsaerarekin. Eleuterioren aitak inprenta zeukan Artekalen eta, hura hil ostean, semeak jaso zuen herentzian. Bertan argitaratu zituzten euskaltasun politikoaren lanetako batzuk. Gabon kantez gain, Bizentak bestelako itzulpenak ere egin zituen, tartean izanik garrantzi politiko handikoak ere. Antza denez, Bizkaiko Foru Aldundiaren agiri batzuk berak euskaratu zituen. Ildo foruzale antiliberal hura, jakina, karlismoarekin leurratu zen 1833tik aurrera. Bide horretatik jo zuen Bizentak berak ere. Gerra karlistaren ostean, urte gutxiren buruan hil ziren senar-emazteok, Eleuterio 1848an, Bizenta 1854an, 73 urte zituela. Horieta 37 Abandon eman zituen. Bitarte horretan izen handia hartu ei zuen beste langintza batekin: gaixoak sendabelarren bidez osatzen.

Bizenta Mogel idazlea, bertso egilea eta itzultzailea izan zen, kultura zabaleko pertsona. Garai hartan emakumei ezarritako mugak nahita gainditu zituen, atzetik etorri zirenezat bide berriak urratuz. Hala ere, ez zen izan, inondik inora, euskal literaturako lehenengo emakumea. Beste asko izan ziren lehenago, gehienek izenak ez dakizkigun arren. Andrea izan baitziren Erdi Aroko eresi zoragarrien egileak, Santxa Ozaetako eta Usoa Alosko, adibidez. Literatura idatzian, oraingoz Estibaliz Sasiola da ezagutzen dugun lehenengo emakume idazlea. Lazarragaren kaieran agertutako olerki batzuk hari zor zaizkiolako, orrialde horietan bertan hala aitortzen zaito, behinik behin. Ondoren, jakina, beste asko etorri dira, bide berriak egiten, bide zaharrak zabalzen. Baina ez da dudarik hogoita bi urteko Bizentak mugak hausti zituela. "Ipui onak" liburuan aitortu zuen bezala, "nola nik siniserazoko diet askori, euskeratu ditudala erdaldu jakitunak argitaratu dituzten Ipuiak? Orretarako bear litzake jakitea Euskera, Gaztelania, eta Latinezko iru ikuntzak. Zein gauza sinisgaizta neskata bategan!".

GEHIAGO JAKITEKO:

-Kaltzakorta, Xabier: Bizenta Mogel. Eusko Jaurilaritza, Gasteiz, 1992. http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp;

Gomutan. Bilboko historiaren atal ezezagunak liburua, Bilboko udaletxea, Erroa argitaletxea, Bilbo Hirirratia eta BilbaoArte Fundazioaren laguntzari ezker argitaratu da, eta liburua hortatik atera dira ondoko testu eta irudiak

Ane Pikazaren ilustrazioa

EXPO DISTRITO 2019

CM CASTAÑOS (Castaños, 11)

Iñaki Alonso (fotografía). Del 3 al 13 de marzo
Encontrarte (pintura). Del 17 al 31 de marzo

CM S. INAZIO-IBARREKOLANDA (Errondoko, 2)

Iñaki Alonso (fotografía). Del 3 al 13 de marzo
Endika Basaguren Ansoleaga (Dibujo e instalación). Del 17 al 31 de marzo

CM ERREKALDE (Tr. Altube, 6)

Montserrat Villamayor (pintura). Del 3 al 13 de marzo

CM SAN FRANTZISKO (Plaza Corazón de María)

Montserrat Villamayor (pintura). Del 17 al 31 de marzo

CM BEGOÑA (Circo Amateur Club Deportivo, 2)

Encontrarte (pintura). Del 3 al 13 de marzo
Iñaki Alonso (fotografía). Del 17 al 31 de marzo

CM LA BOLSA (Pelota, 10)

Endika Basaguren Ansoleaga (Dibujo e instalación). Del 3 al 13 de marzo

CM ABANDO (Elcano, 20)

Txomin Goyoaga (pintura). Del 3 al 13 de marzo

CM OTXARKOAGA (Pau Casals, 19)

Txomin Goyoaga (pintura). Del 17 al 31 de marzo

* www.kulturabarrutiek.us

BILBOKO ZIRKUITUA

Hilak 5 Basurtu Udaltegia: Aimara Teatro.
El enfermo imaginario

Hilak 6 Errekalde Udaltegia: Con la que está cayendo.
Aquí no paga nadie

Hilak 12 Otxarkoaga Udaltegia: Katastrofen Teatro.
Las fosas abisales

Hilak 13 Zorrotza Udaltegia: Luris Tantom.
Raúl no cenes solo

Hilak 25 Castaños Udaltegia: Ana Capilla.
Cajita de música

Hilak 26 San Frantzisko Udaltegia: Loida A. Gómez.
Artaud y otros animales

Hilak 27 Errekalde: Alopargo Teatroa.
Rebelión en la granja

* Emanaldiak 19:30ean hasiko dira

* www.kulturabarrutiek.us / www.badbilbao.es

AZKUNA ZENTROA

(Plaza Arrikiabar, 4)

Álex Rigola. Macho Man. Hasta el 15 de marzo
Sandra Cuesta. Lo adherente y el fuego.

Hasta el 22 de marzo

BideOtiK. Hasta el 25 de marzo

Alina Aguila y Tana Garrido. Hasta el 26 de abril
Steve Paxton. Drafting Interior Techniques.

Hasta el 10 de mayo

Nestor Lizalde. Aquelarre eléctrico. Instalación.
Hasta el 31 de diciembre de 2020 (terrazza)

BELLAS ARTES BILBAO

(Plaza del Museo, 2)

Cazando impresiones. Sorolla en pequeño formato.

Hasta el 23 de febrero

Los Goyas de Zubieta. Hasta el 30 de marzo

Isabel Baquedano. De la belleza y lo sagrado.

BILBOROCK

- Hilak 1-8** ZINEGOAK 2020. Zinea
- Hilak 9** Intercambio de idiomas con Happy Erasmus. Topaketa
- Hilak 12, 13 eta 14** Bilbao You Week. Jardunaldiak
- Hilak 16** Baile Happy Erasmus. Topaketa
- Hilak 17** Imaginatuak. Topaketa
- Hilak 18** Jornada sobre el Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial. Jardunaldia
- Hilak 19** Candlelight. Musika
- Hilak 20** Harrapazank Jaia
- Hilak 21** Masterclass de Zumba. Dantza
- Hilak 21** Wocked Wizzard + Red Totem + Entropía. Musika
- Hilak 22** Martita de Graná. Umorezko bakarrizketa
- Hilak 23-26** Harrapazak Kastingak 2020
- Hilak 27** Arte 8 Escuela de Baile. Antzerkia
- Hilak 28** Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Sariak
- Hilak 28** Nuclear Dreams. Musika
- Hilak 31** Bilbao Musika

* www.bilbaogazte.bilbao.eus

BILBAO DISTRITO JAZZ

- Día 6** Elisabet Raspal trío (Biblioteca de Bidebarrieta). Elisabet Raspal: piano, Tom Warburton: contrabajo, Jarrod Cagwin: percusión
- Día 13** Marko Churnchetz trío (CMD Errekalde). Jonathan Hoard: voz, Marko Churnchetz: piano, Fender Rhodes, Kweku Sumbry: batería, Ameen Saleem: contrabajo

* Todos los conciertos a las 19:30 h. Entrada gratuita CON INVITACIÓN hasta completar aforo

* www.kulturabarrutiek.eus

BILBAOARTE

Exposiciones:

- Incubadoras*. Los Picoletos. Hasta el 6 de marzo
- Cuernos a la vista*. Damaris Pan. Del 13 de marzo al 8 de abril

Cursos, seminarios, conferencias:

- Presentación del proyecto documental: *Lanak, cambios de paradigma en las tipologías laborales*. Con Itsaso Díaz. Día 27 de marzo a las 19:00

Art House Zinema:

- ZINEGOAK 2020*: Días 2, 3, 4 y 5 de marzo.
- Kenji Mizoguchi: el cineasta que respetaba a las mujeres*: Días 6, 13 y 20 de marzo
- Serie documental *Cine y Mujeres: Women Make Film*: Días 9, 16, 23 y 30 de marzo
- Costa Gavras: La coherencia de un cine solidario*: Días 10, 12, 17, 18, 25 y 31 de marzo
- La cita del primer miércoles. Cine subtulado en euskera: *Eskerrark Jainkoari* (2019). Día 11 a las 18:30
- La cita del último miércoles con el cine francés. *Lancelot du lac*. Día 25 de marzo a las 17:00 y 19:00

Performances:

- La nación transparente y la casa de madera*. Raisa Raekalio & Misha del Val. Día 5 de marzo a las 17:30
- Hasta que no quede nada*. Adrián Castañeda. Día 6 de marzo a las 19:00

* www.bilbaoarte.org

EUSKAL MUSEOA/MUSEO VASCO

Gorri Bisuala

- Zalao Ipiña. Del 20 de febrero al 27 de abril

* www.euskal-museoa.eus

NOR DA? / ¿QUIÉN ES?



PREGUNTA:

JUGADOR LEYENDA DE LA NBA APODADO 'LA MAMBA NEGRA', RECIENTEMENTE FALLECIDO EN ACCIDENTE DE HELICÓPTERO, Y QUE GANO CINCO ANILLOS CON LOS LAKERS

Enviar la respuesta a Periódico Bilbao. Plaza del Ensanche, 11, 48009 Bilbao. El plazo finaliza el 26 de marzo y se sorteará una reproducción de la farola de Bilbao entre las personas acertantes.

La ganadora del pasado mes fue **BELÉN MEJUTO**, domiciliada en Basauri. La respuesta correcta era: "SIGMUND FREUD"

ARTE GIDA / GUÍA DEL ARTE

Hasta el 20 de abril
Ameztoy. Del 12 de febrero al 7 de junio
Víctor Erice. *Piedra y Cielo*.
Hasta el 1 de enero de 2021

CARRERAS MÚGICA

- (Heros, 2)
- Pello Irazu**. *Solo un temblor*. Hasta el 7 de marzo
- Armando Andrade Tudela**. *Dejar X por Ser X*. Hasta el 31 de marzo

COLEGIO ABOGADOS

- (Rampas Uribitarte, 3)
- Jose Enrike Urrutia Capeau**. Hasta el 30 de abril

GALERÍA AIRE

- (San Mamés, 11 - Callejón Zollo)
- Daniel Tamayo**. *Nefelibata*. Hasta el 30 de abril

GUGGENHEIM

- (Abandoibarra, 2)
- Olafur Eliasson: en la vida real**. Hasta el 21 de junio
- Richard Artschwager**. Hasta el 10 de mayo

LLAMAS

- (Iparraguirre, 4)
- Artistas contemporáneos. Todo el mes de marzo

LUMBRERAS

- (Henao, 3)
- Neofiguración Vasca**. Hasta el 3 de abril

MONGOLIA GUNEA

- (Aretxaga, 2)
- Miren Barrena**. *Estratos*. Hasta el 31 de marzo

ONDARE ARETOA

- (María Díaz de Haro, 11)
- Mercedes de Miguel**. *El arte de vestir*. Hasta el 18 de abril

SALA REKALDE

- (Al. Recalde, 30)
- Cristina García Rodero**. *Con la boca abierta*. Hasta el 17 de mayo

SC GALLERY (Cortes, 4)

- Daniel Muñoz**. #casa#mapa#cielo#trampas. Hasta el 20 de marzo

VANGUARDIA

- (Al. Mazarredo, 19)
- Patricia Bofill**. *Infinito Invisible*. Hasta el 28 de marzo

YIMBY SOTA

- (Gran Vía, 45)
- Jon Mao**. *Siluetas desoladas*. Hasta el 15 de junio